

LIBORgate

IZUA WALL STREET-EN

LIBOR scandal
PANIC IN WALL STREET

Manipulación del LIBOR
PÁNICO EN WALL STREET



As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1,A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

[facebook.com/EKAICentre](https://www.facebook.com/EKAICentre)

[scribd.com/EKAICenter](https://www.scribd.com/EKAICenter)

1. LIBORraren banku arteko interes-tasen manipulazioa dela eta duela hilabete batzuk piztu zen eskandalua ustekabeko neurria eta oihartzuna hartzen ari da.

2. Bankari Britainiarren Elkartek (BBA) kudeatzen du LIBORRA, eta indize hori zehazteko, banku arteko interes-tasen egoerari buruz banku nagusiek bidalitako informazioa erabiltzen da.

3. Eurogunetik kanpo, LIBORRA zen –eta da– interes-tasa aldakorren erreferente nagusia, batez ere Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan.

4. Herrialde horietan, ia mailegu guztiek eta tasa aldakorreko zor guztiak LIBORRA hartzen dute erreferentzia gisa. Finantza-deribatuetan dauden ia 350 bilioi dolar ere –Europako bilioiak– LIBOR indizearen erreferentziapean daude.

5. Zenbait komunikabide eskandalu horren berri ematen hasi ziren Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan Barclays Bank ikertzen ari zirela jakin zenean. Banku horri zuzeneko salaketa egin zitzaion, LIBORREAN egin ziren manipulazioen ondorioz, etekinak lortu zituelako berak erositako finantza-deribatuen bidez.

6. Barclays bankuko goi mailako zuzendariei zigorrak ezarri eta dimisio batzuk eman ondoren, eskandalua munduko beste banku-erakunde handi batzuetara zabaldu zen. Orain badakigu LIBOR indizea zehazteko bidali ziren interes-tasak sistematikoki manipulatu izanaren susmopean daudela City-ko ia banku handi guztiak, eta ondorioak dituztela Ingalaterrako Bankuan eta AEBetako Erreserba Federalaren arduradun nagusiengan; hango Kongresuak galdeketa egin die Erreserba Federalaren eta New Yorkeko Erreserbaren arduradun nagusiei. AEBetako Altzor Publikoaren idazkaria bera ere eragiketa

horietan zuzenean nahastuta egoteaz akusatu dute.

7. Ez da aditua izan behar gertaera horiek munduko finantza sistemaren funtzionamenduaz adierazten duten larritasunaz ohartzeko, batez ere, kontuan hartzen bada, LIBORRA dela EURIBORRA zehazteko erreferentzietako bat, eta horrek azaltzen du Europako Banku Zentralak EURIBORRAREN gaineko ikerketak abiarazi izana.

8. Azken asteotan ahots askok salatu dute gertaera hau, argi eta garbi adierazten baitu kolusio sistematikoa dagoela banku handien eta herrialde anglosaxoiertako banku zentralen artean, eta banku nagusiek erraztasun handia izan dutela finantza sistema kontrolatzeko, ez, ordea, interes orokorraren mesedetan, sistematikoki legez kontrako etekinak lortzeko baizik.

9. Gero eta argiago dago finantzen globalizazioak –eta Europako moneta-batasunak– ekarri duen botere-metaketa izugarria ez dela batere onuragarria izan munduko ekonomiarentzat; aitzitik, Mendebaldeko egitura ekonomiko eta politiko oinarritzkoenak hondoratzeko mehatxua dela.

10. Beraz, premiazkoa da mendebaldeko finantza-sistemaren erreforma egitea, bai moneta arloan, bai banku arloan. Baina, batez ere, premiazkoa da finantza-boterea deszentralizatzea. Finantza sistemaren erabaki funtsezkoenak Frankfurten, Londresen eta New Yorken zentralizatzea da agian mendebaldeko demokraziek egin duten errakuntzarik larriena.

11. LIBORRAREN manipulazioa dela eta ikerketa kriminalak ireki izanak argi erakusten du gure finantza-egiturak zer puntutaraino dauden

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

mekanismo ez-gardenetan oinarrituta, interes partikularretarako oso erraz erabili baitaitezke, eta, mekanismo horien bidez, finantza-sistemako eragile gutxi batzuek familien, enpresen eta gobernuen baliabideak sistematikoki kentzen dituzte.

12. Eskandalu hau ezin da konparatu aurretik hirugarren edo laugarren mailako arduradunak nahastuta zeuden eskandaluekin. Prozedura kriminaletan sartuta daude nazioartean ospe handia duten eta orain arte ukiezinak ziren erakundeetako zuzendari gorenak: HSBC, Barclays, CityBank, Credit Suisse, JP Morgan, Deutsche Bank, Bank of America ...

13. Arazoa da LIBOR indizearen manipulazioarekin gertatzen ari zena publikoki agertu denean, horren ondorioak aurrekusi ezinezkoak direla. Hainbat eta hainbat dira horren kaltea jasan dutenak: ehunka banku txiki eta handi, milaka erakunde publiko, batez ere AEBetan, milaka eta milaka industria-enpresa, milioika kreditu-hartzaile, gobernua, ...

14. Manipulazio horiek zuzenean kaltetu dituzten AEBetako toki erakunde, banku txiki eta erabiltzaile elkarteek jarritako salaketak izugarri ugaritu dira azken asteotan, eta oraindik ez daki inork noraino zabaldu daitezkeen prozesu horien ondorio judizialak eta politikoak.

15. Orain badakigu manipulazio horiek duela hamar urte hasi zirela egiten. Eta zilegi da galdetzea zer dela eta sortu den oraintxe eskandalu hau.

16. Laster ikusiko dugunez, badirudi barneko liskarra piztu dela munduko finantza boterearen sektore batzuen artean. Mendebaldeko finantza-krisiaren larritasuna itzulerarik gabeko puntu

batera iristen ari da, eta kezagarria da mundu osoan lehertzeko dagoen arriskua, bai arlo ekonomikoan, politikoan nahiz militarrean.

17. Izan ere, itxura guztien arabera, bai City-an, bai Wall Street-en –batez ere Londreseko City-an- zenbait eragin-taldek esku-ukaldi bat ematea erabaki dute finantza-botere globala berregituratzera behartzeko, are sistemaren beraren barnetik, kontrolik gabe dena lehertu baino lehen. Kezkatzeko arrazoi bat gehiago finantzen botere guneetako frakzioirik erradikalenarentzat, epe laburrean “aurrerantz ihes egitea” erabaki baitu, tentsio geostrategikoa, politikoa eta militarra areagotuz.

18. Nolanahi ere, mendebaldeko finantza sisteman egin nahi ziren erreformak blokeatuta daude eta ezin da horren inguruan itxaropen handirik izan. Kontrakoa baizik; izan ere, gero eta egoera arriskutsuagoa sortu daiteke, erreformak atzeratu eta finantza sistemak bere burua kolokan ikusten duen heinean, bai arlo ekonomikoan, politikoan -edo judizialean-.

As a Working Paper, it does not reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities.

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.